

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>betegintzarrea</b>	«...amets orok loratze eta <b>betegintzarre</b> duen ugarte dohatsuetaraino...»
<b>eragotzi</b>	«...ezpain meheak tinkaturik eta mutiri, etxeko jaunak <b>eragozten</b> ziolako...»
<b>intzirika</b>	«...parkeko zuhaitz ilunak (...) <b>intzirika</b> ari ziren...»
<b>irkaitza</b>	«...bere aurpegi maltzurra <b>irkaitzez</b> erakusten zuelarik...»
<b>mutiri</b>	«...ezpain meheak tinkaturik eta <b>mutiri</b> , etxeko jaunak eragozten ziolako...»
<b>tinkaturik</b>	«...ezpain meheak <b>tinkaturik</b> eta mutiri, etxeko jaunak eragozten ziolako...»
<b>urkabe bihurtu</b>	«...berriz ere <b>urkabe bihurtzen</b> ziren zuhaitzok, zut, gora...»
<b>aizun-irudia</b>	«...bere buruaren <b>aizun-irudiari</b> uko ez egitearren.»
<b>garra</b>	« <b>Gar</b> biziek xinpartak zerabilzkiten sutegian...»
<b>koldarra</b>	«Ez <b>koldar</b> zelako, agian.»
<b>lain</b>	«...edonori aurre egiteko <b>lain</b> izanen litzateke, noski...»
<b>otseina</b>	«...eta askotan zinkurina egiten zion neskameak, aspaldiko <b>otsein</b> batek duen familiaritate zaputzarekin...»
<b>uko egin</b>	«...bere buruaren aizun-irudiari <b>uko ez egitearren.</b> »
<b>xinparta</b>	«Gar biziek <b>xinpartak</b> zerabilzkiten sutegian...»
<b>zaputza</b>	«...eta askotan zinkurina egiten zion neskameak, aspaldiko otsein batek duen familiaritate <b>zaputzarekin.</b> »
<b>zinkurina</b>	«...eta askotan <b>zinkurina</b> egiten zion neskameak, aspaldiko otsein batek duen familiaritate zaputzarekin...»
<b>aita besoetakoa</b>	«...so egin zion <b>aita besoetakoari</b> irribarre herabeti batekin.»
<b>antzaldatu</b>	«...lurra, haizea eta ura <b>antzaldatzen</b> eta moldatzen dituen...»
<b>aztala</b>	«...noizetik noizera, gar luzeago batek haren <b>aztal</b> ezta miazkatuz, aldera inguratzen zen hats-behera ito batekin.»
<b>eretia</b>	«Elkari so egon ziren <b>ereti</b> labur hartan, haurraren begi nabar zohargiak harenei erantsiak gelditu zitzaizkien.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>erraustatu</b>	«...xinpart batek (...) urrez <b>erraustatzen</b> zituen haren ile-sorta barneko ilun-nabarrean gorrixka ageri zirenak...»
<b>esteta</b>	«...haren irriki zoroa (...) <b>esteta</b> baten solas alferra baizik izan ez zelako hasieran.»
<b>gardena</b>	«...haren irriki zoroa (...) ur <b>garden</b> ozpila, itur-buruan agortuko zitzaiola, esteta baten solas alferra baizik ez zelako hasieran.»
<b>hats-behera</b>	«...noizetik noizera, gar luzeago batek haren aztal ezta miazkatuz, aldera inguratzen zen <b>hats-behera</b> ito batekin.»
<b>herabetia</b>	«...so egin zion aita besoetakoari irribarre <b>herabeti</b> batekin.»
<b>irriki</b>	«...haren <b>irriki</b> zoroa (...) ur garden ozpila, itur-buruan agortuko zitzaiola, esteta baten solas alferra baizik ez zelako hasieran.»
<b>jauzi</b>	«Txinpartak ke-bidean gora <b>jauzten</b> ziren, sorgin ongile batek deituriko pamerial alaiak irudi.»
<b>nabarra</b>	«Elkarri so egon ziren ereti labur hartan, hauraren begi <b>nabar</b> zohargiak harenei erantsiak gelditu zitzaizkien...»
<b>ozpila</b>	«...haren irriki zoroa (...) ur garden <b>ozpila</b> , itur-buruan agortuko zitzaiola, esteta baten solas alferra baizik ez zelako hasieran.»
<b>pameriala</b>	«Txinpartak ke-bidean gora jauzten ziren, sorgin ongile batek deituriko <b>pamerial</b> alaiak irudi.»
<b>so egin</b>	«... <b>so egin</b> zion aita besoetakoari irribarre herabeti batekin.»
<b>solasa</b>	«...haren irriki zoroa (...) esteta baten <b>solas</b> alferra baizik izan ez zelako hasieran.»
<b>zitzailua</b>	«Sutondoan, <b>zitzailuan</b> jarririk zegoen Theresa...»
<b>zohargia</b>	«Elkarri so egon ziren ereti labur hartan, hauraren begi <b>nabar zohargiak</b> harenei erantsiak gelditu zitzaizkien...»
<b>aitzin-eritzia</b>	«...hura ez zen giza-saldoaren <b>aitzin-iritzietara</b> makurtuko.»
<b>bide</b>	«Bai, noski, bat edo beste izan <b>bide</b> da, pentsatzen zuen...»
<b>doi-doi</b>	«...jendeekin jendakin, gizartean gizabidetsuki, erdeinu apur bat <b>doi-doi</b> erakutsiz.»
<b>erdeinua</b>	«...jendeekin jendakin, gizartean gizabidetsuki, <b>erdeinu</b> apur bat doi-doi erakutsiz.»
<b>ezinagoan</b>	«...kirestasunez beterik <b>ezinagoan</b> ...»
<b>giza-saldoa</b>	«...hura ez zen <b>giza-saldoaren</b> aitzin-eritzietara makurtuko.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>gizabidetsuki</b>	«...jendeekin jendakin, gizartean <b>gizabidetsuki</b> , erdeinu apur bat doi-oi erakutsiz.»
<b>jendakina</b>	«...jendeekin <b>jendakin</b> , gizartean gizabidetsuki, erdeinu apur bat doi-oi erakutsiz.»
<b>kirestasuna</b>	«... <b>kirestasunez</b> beterik ezinagoan...»
<b>zindoa</b>	«...beharbada gutxien susma daitekeen gizon zintzo, <b>zindo</b> , jainkotiar bat...»
<b>aileki</b>	«Edozein leialtasunen zamaz <b>aileki</b> halaber bere burua askatzen!»
<b>aio</b>	«...bere <b>aio</b> gartsuak gogoia erretarik ametsetan iragan zituen azkenengo egun horietan.»
<b>alatu</b>	«Ez zituen noski ulertuko haurraren adimen gazteak gizonaren gogoak <b>alatu</b> zituen zorabiozko pentsamendu horiek.»
<b>egotzi</b>	«...konturatu zen pekoz beteriko begiradak <b>egotzen</b> zizkiola, epaixka...»
<b>epaixka</b>	«...konturatu zen pekoz beteriko begiradak egotzen zizkiola, <b>epaixka</b> ...»
<b>gartsua</b>	«...bere aio <b>gartsuak</b> gogoia erretarik ametsetan iragan zituen azkenengo egun haietan.»
<b>godaleta</b>	«Baina gizonak irribarre batekin esan zion <b>godalet</b> bat bete ziezion ...»
<b>hautetsia</b>	«...besteak bezalako ez ziren <b>hautetsi</b> haiek!»
<b>munta</b>	«Baina ez zuen <b>muntarik</b> zer susmatu edo zer jakin zuen neskame zintzo hark.»
<b>pekoa</b>	«...konturatu zen <b>pekoz</b> beteriko begiradak egotzen zizkiola, epaixka...»
<b>aburua</b>	«Barregarri zen, pentsa zer <b>aburu</b> zukeen andere gazte apainak atso arront, zantar horretaz.»
<b>bakuna</b>	«...berak ez zituen <b>bakunak</b> besteak baino gehiago ez gutxiago erdeinatzen...»
<b>biharamuna</b>	«... <b>biharamuneko</b> sei orduen aldera telefonatuko zuela.»
<b>kuttuna</b>	«Bazekien Isabela neskamearen <b>kuttuna</b> zela...»
<b>ondikotz</b>	«...pattarra burmuina sorgortzen hasia zitzaion eta pentsamendu minak sorgortzen —azaletik baizik ez, <b>ondikotz!</b> »
<b>pattarra</b>	«... <b>pattarra</b> burmuinak berotzen hasia zitzaion eta pentsamendu minak sorgortzen, azaletik baizik ez ondikotz!»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>sorgortu</b>	«...pattarra burmuinak berotzen hasia zitzaien eta pentsamendu minak <b>sorgortzen</b> —azaletik baizik ez, ondikotz!»
<b>agerrean</b>	«...bere zorion ilortuen intziriak, bere atsegin okaztagarrien oroipenak ohiltzeagatik edaten jarraiki zen, edonoren <b>agerrean</b> .»
<b>ilortu</b>	«...bere zorion <b>ilortuen</b> intziriak, bere atsegin okaztagarrien oroipenak ohiltzeagatik edaten jarraiki zen, edonoren agerrean.»
<b>ohildu</b>	«...bere zorion ilortuen intziriak, bere atsegin okaztagarrien oroipenak <b>ohiltzeagatik</b> edaten jarraiki zen, edonoren agerrean.»
<b>okaztagarria</b>	«...bere zorion ilortuen intziriak, bere atsegin <b>okaztagarrien</b> oroipenak ohiltzeagatik edaten jarraiki zen, edonoren agerrean.»
<b>agintza</b>	«...bizi berri baten gezurrezko <b>agintza</b> eta hitz-emateek ergelki liluraturik...»
<b>arrea</b>	«...hiltzera dihoazenen aurpegi zurbilak azken aldikotz argitzen dituztenetakoa izanen zen goiz <b>arreak</b> ...»
<b>zainbera</b>	« <b>Zainbera</b> zen haurra...»
<b>zurbila</b>	«...hiltzera dihoazenen aurpegi <b>zurbilak</b> azken aldikotz argitzen dituztenetakoa izanen zen goiz arreak...»
<b>gertu</b>	«...bera ere ohera joateko <b>gertu</b> zen.»
<b>iguriki</b>	«Minuta bakoitzeko hirurogei sekonda <b>iguriki</b> behar...»
<b>ilki</b>	«...neskamea bere sukaldetik <b>ilki</b> eta eskailera sarbidean agertu zen...»
<b>urragarria</b>	«Gogorapen <b>urragarri</b> horrek haren gautik infernu bat egin ez liezontzat.»
<b>adatsa</b>	«Haren <b>adats</b> horia, gauerako deslotua, erortzen zitzaien sorbaldara...»
<b>aizina</b>	« <b>Aizina</b> zuen beraz.»
<b>malgua</b>	«...baina garbiro ikusten zuen haren aurpegi ertz <b>malgua</b> ...»
<b>matraila</b>	«...haren aurpegi-ertz malgua, <b>matrailaren</b> marra ezta.»
<b>saihets erazi</b>	«...ez nau hark <b>saihets eraziko</b> , pentsatzen zuen haserreturik.»
<b>aiduru</b>	«...egun guztian <b>aiduru</b> egon ondoren.»
<b>oldarra</b>	«...ez zedukan berezko olde ez <b>oldarrik</b> izateko zuzenik...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>oldea</b>	«...ez zedukan berezko <b>olde</b> ez oldarrik izateko zuzenik...»
<b>zioa</b>	«... <b>zio</b> onak ekarriko zituen noski bere nahiak lortzeko: haziera, eskola...»
<b>zuzen</b>	«...ez zedukan berezko olde ez oldarrik izateko <b>zuzenik</b> ...»
<b>mardula</b>	«...eta haren izterrak, <b>mardul</b> eta fresko zirenak...»
<b>ordoa</b>	«...hain sotilki zekarren sabeltxo <b>ordo</b> horri...»
<b>sotilki</b>	«...hain <b>sotilki</b> zekarren sabeltxo ordo horri...»
<b>enda</b>	«...beltzaranduko zen urrezkotasun hori guztia, <b>endaren</b> halabeharraz...»
<b>hitsa</b>	«Baina ez zen ordu, gogorapen <b>hits</b> horiek ala zitzaiz...»
<b>orbandu</b>	«bere haur emetasuna <b>orbandu</b> gaberik zedukalarik...»
<b>oixtion</b>	«Ez hola, <b>oixtion</b> bezala!»
<b>tinkatu</b>	«...haur biluziaren gorputza bereari kontra sendituz, amoltsuki <b>tinkatu</b> zuen...»
<b>hildura</b>	«Hortarakotz, edozein humilazio, zernahi <b>hildura</b> jasatera gertu zen...»
<b>antzetsua</b>	«...Theresa xiki hori aski <b>antzetsua</b> izan zela lo zegoelakoa egiteko...»
<b>artegatasuna</b>	«Theresaren <b>artegatasunaz</b> ohartu zen...»
<b>urtu</b>	«...hala non eguneango pentsamendu kiratsak oro <b>urtu</b> baitzitzaizkion...»
<b>izarniatu</b>	«Gauerdiko isiltasun hitzunean, gaueko ilunpe <b>izarniatuan</b> ...»
<b>eiki</b>	«...oraindik ez gura zuen bezainbat, <b>eiki</b> , baina ezagutza hori gehituz joanen zen egunero...»
<b>elea</b>	«Zer izanzen ziren Theresaren lehengo <b>eleak</b> ...»
<b>ihardespena</b>	«...irribarre isil, itzurkor horrek edozein <b>ihardespen</b> balio zuen...»
<b>itzurkorra</b>	«...eta irribarre isil, <b>itzurkor</b> horrek edozein ihardespen balio zuen...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>men egin</b>	« <b>Men egin</b> beharko zion Isabelak opariñari, berak egin zion bezala!»
.....	
<b>opariña</b>	«Men egin beharko zion Isabelak <b>opariñari</b> , berak egin zion bezala!»
.....	
<b>otzanki</b>	«Gosaria ekarri zion neskameari agurra <b>otzanki</b> bihurtu zion...»
.....	
<b>itunbena</b>	«Eta berehala, Theresa etorri zitzaion aldamenera, <b>itunben</b> baten ondotik izan bailitzakeen...»
.....	
<b>jargia</b>	«Bere besodun <b>jargian</b> eseri zen...»
.....	
<b>lagatu</b>	«Geroarekiko kezka gerorako <b>lagatuz</b> ...»
.....	
<b>are</b>	«Begiak erdi itxita, uzten zuen musika jainkozko hori <b>are</b> durundatzera...»
.....	
<b>bekaizkeria</b>	«Baina <b>bekaizkeriak</b> osk egin zion bihotzean, bet-betan otu zitzaizolarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»
.....	
<b>bet-betan</b>	«Baina bekaizkeriak osk egin zion bihotzean, <b>bet-betan</b> otu zitzaizolarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»
.....	
<b>durundatu</b>	«Begiak erdi itxita, uzten zuen musika jainkozko hori are <b>durundatzera</b> ...»
.....	
<b>osk egin</b>	«Baina bekaizkeriak <b>osk egin</b> zion bihotzean, bet-betan otu zitzaizolarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»
.....	
<b>otu</b>	«Baina bekaizkeriak osk egin zion bihotzean, bet-betan <b>otu</b> zitzaizolarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»
.....	
<b>esetsi</b>	«...eta gizonak <b>esetsi</b> zion zorrotz samar...»
.....	
<b>haur-izua</b>	«...hire begiek ez lieukedanate ene bihotz-min gozoa den <b>haur- izu</b> urragarri hori erakutsiko...»
.....	
<b>hezerik</b>	«...eta Theresaren begiak, <b>hezerik</b> ageri zirenak...»
.....	
<b>igurika</b>	«Maltzurkeria xiki horrek alaiturik, irri egin zuen, eta Theresak burua eraiki zuen, <b>igurika</b> .»
.....	
<b>aipua</b>	«Ez zuten beste eskola <b>aipurik</b> izan.»
.....	
<b>eragabetu</b>	«...hain akats gabekoa zen ereti hori ilundu eta <b>eragabetu</b> ...»
.....	
<b>erasiaka</b>	«...ziotsan bihotzak <b>erasiaka</b> ...»
.....	
<b>malgurtu</b>	«...gerri meharra haren besoan <b>malgurturik</b> landare gazte bat izan bailitzakeen.»
.....	

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>meharra</b>	«...gerri <b>meharra</b> haren besoan malgurturik landare gazte bat izan bailitzakeen.»
<b>pozarren</b>	«Haurrak ere irri egin zuen, <b>pozarren</b> ...»
<b>sarri</b>	«...bazkaltzeko tenorea izanen zuten <b>sarri</b> ...»
<b>tenorea</b>	«...bazkaltzeko <b>tenorea</b> izanen zuten sarri...»
<b>itzuri</b>	«Isabela <b>itzur</b> ez zitekeen gaitza zenez gero...»
<b>zantarra</b>	«Zertarako bakezko azken minuta horiek nahastu nahi zizkien atso <b>zantarrak</b> ...»
<b>harro</b>	«Ilea <b>harro</b> , begien ñirñira dirdaitsuegi, bularra jori...»
<b>inguratu</b>	«...eta, nardaz beterik, soa <b>inguratu</b> zuen haren aldetik.»
<b>joria</b>	«Ilea harro, begien ñirñira dirdaitsuegi, bularra <b>jori</b> »
<b>narda</b>	«Begiratzen ziolarik, zakur-eme bat orkara gogora erazten zion senargaiari eta, <b>nardaz</b> beterik, soa inguratu zuen haren aldetik.»
<b>nirñira</b>	«Ilea harro, begien <b>ñirñira</b> dirdaitsuegi, bularra jori...»
<b>oguz</b>	«Berak eta bere <b>oguz</b> zuen aukeratu, orain urtebete edo zela...»
<b>ohaidea</b>	« <b>Ohaidetzat</b> izan nahi zuen...»
<b>orkara</b>	«Begiratzen ziolarik, zakur eme bat <b>orkara</b> gogora erazten zion senargaiari eta, nardaz beterik, soa inguratu zuen haren aldetik.»
<b>soa</b>	«...eta, nardaz beterik, <b>soa</b> inguratu zuen haren aldetik.»
<b>abagunea</b>	«...bere bakartasunean iguriki behar zuen zeruak edo zoriak eskainiko zion <b>abagunea</b> ...»
<b>gurena</b>	«...bere amets <b>gurenarekin</b> bizi izan balitz...»
<b>pairu handikoa</b>	«Hain <b>pairu handikoa</b> izan zitekeenik ez zuen esperantza...»
<b>zoria</b>	«...bere bakartasunean iguriki behar zuen zeruak edo <b>zoriak</b> eskainiko zion abagunea...»
<b>erdeinatu</b>	«...ez zituen haren gogoa eta bihotza baizik <b>erdeinatzen</b> ...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>higikundea</b>	«Zorionez anderea ez zen konturatu atzekaldera hasi zuen <b>higikundeaz</b> ...»
.....	
<b>ikola</b>	«...gorputz <b>ikol</b> horretatik atsegin apur bat atera nahirik...»
.....	
<b>begitartea zapuztu</b>	«Halarik ere <b>begitartea zapuztu</b> zitzaien...»
.....	
<b>otapurra</b>	«...zakur batena irudi norbaitek <b>otapur</b> bat botatzen dionean...»
.....	
<b>biloa</b>	«Isabelari zerion usain okaztagarria ahora zetorkion, haren <b>biloeatik</b> ...»
.....	
<b>ezaina</b>	«Orain, aldiz, berak zuen gorputz <b>ezain</b> horren menpeko izan behar...»
.....	
<b>irritsu</b>	«Begiak selaura jasorik, uzten zuen emakume <b>irritsua</b> haragi zainildua laztan ziezon...»
.....	
<b>mendrea</b>	«...haur baten gorpu <b>mendre</b> , bere ahultasunean hain ukigarria ...»
.....	
<b>selaua</b>	«Begiak <b>selaura</b> jasorik, uzten zuen emakume irritsua haragi zainildua laztan ziezon...»
.....	
<b>zainildua</b>	«Begiak selaura jasorik, uzten zion emakume irritsua haragi <b>zainildua</b> laztan ziezon...»
.....	
<b>zurruna</b>	«... nola senar jeloskor batek bere emaztea hil eta honen ohaidea <b>zurrunari</b> bizirik esegi zuen...»
.....	
<b>egonarria</b>	«...erantzun zion, bere buruari oraindik gogor eginaz <b>egonarria</b> gordetzearren.»
.....	
<b>erasia</b>	«Gizona haren <b>erasiaren</b> aiduru zen...»
.....	
<b>estonatu</b>	«“Zer da?”, galdegin zuen <b>estonaturik</b> .»
.....	
<b>kordoka jarri</b>	«...hor zegoen Theresa, <b>kordoka jarririk</b> atea ustekabean ireki ziotelako.»
.....	
<b>mukerra</b>	«...“haur ergel, <b>muker</b> eta biziotsu bat baizik ez duk...»
.....	
<b>zelatan egon</b>	«...pentsatzea gure <b>zelatan egon</b> dela hor...»
.....	
<b>ihakina</b>	«Poz gaizto batekin haren mintzoaren <b>ihakina</b> egin zuen...»
.....	
<b>urdanga</b>	«... <b>urdanga</b> xiki hori dela kausa!”»
.....	
<b>zurratu</b>	« <b>Zurratuz</b> hilen zuen gizonak, bet-betan gogorapen izugarri bat otu ez balitzaio.»
.....	

Izen-deiturak:..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: .... puntu.

Zuzen:

Nota:

- artizarra** «...gau ilunean ageri den **artizarra**...»  
 .....  
**leinurua** «...baina itxaropen-**leinuru** bat hasi zen haietan argitzen...»  
 .....  
**sarri** «...egoten baitziren **sarri** bera eta alaba besoetakoa...»  
 .....  
**agitu** «...sukaldean sartu zen berehala, haiekin **agitu** nahi izan ez balitz bezala...»  
 .....  
**ausaz** «...nahiz harako gogorik guti zedukan **ausaz** neskatoak.»  
 .....  
**damu izan** «**Damu** zuen joatera utzi zuelakotz...»  
 .....  
**elorría** «Baina Isabela izan zen **elorría** bere haragitik kendu ahal izan zuenez gero...»  
 .....  
**gibel asmoa** «...eragozpenik eta **gibel asmorik** gabe, inor so egile gabe...»  
 .....  
**oinazea** «...haren **oinazea** biluzik eta ohe gainean zetzalarik...»  
 .....  
**ezkutapena** «...baina zeini ausartuko zen bere **ezkutapena** salatzeraz?»  
 .....  
**lagun hurkoa** «...**lagun hurkoari** min egiteko jakintzan...»  
 .....  
**perilgarria** «...hala ere, **perilgarri** baita beti emakume iraindu bat ...»  
 .....  
**artoski** «...ikas ezan haren esana egiten enea eginen dudan bezain **artoski**.»  
 .....  
**baiko** «Hura itzali **baiko** liburua utzi zuen eta hasi zen berriz ere gogoetatzen.»  
 .....  
**den mendren** «...eta otseina, sorbaldak **den mendren** eraikiz alde egitera zoalarik, gaineratu zuen...»  
 .....  
**estonamendua** «...hala ere **estonamendu** piska bat erakutsiz, agindu zion...»  
 .....  
**jin** «...hobe zela momentuko inor ez lekion **jin** ikustera, bakantzez joatekotan baitzegoen.»  
 .....  
**garbaia** «**Garbai** zedukan gizonak deusik salatu gabe joatera utzi zuelakotz goizean.»  
 .....  
**beharrunea** «...bazedukan **beharrune** bat zorion ozar hori delako ezagunei —ahaide, adiskide edo edozein laguni— erakustekotz...»  
 .....  
**arnegatzailea** «...jainko zaharraren **arnegatzaile** ziren gizon eta emakumezkoek...»  
 .....